

## **Federalistak**

### **El sistema autonómico ante la pandemia**

8 de agosto de 2020.

La crisis del coronavirus está mostrando las virtudes y los defectos de nuestro sistema de gobierno y, muy específicamente, de nuestro sistema autonómico. Ha reafirmado, en este sentido, el carácter insoslayable de los autogobiernos territoriales como elemento indispensable de la estructuración democrática de esta España real, caracterizada por su diversidad, y, al mismo tiempo, la necesidad ineludible de un gobierno común del conjunto del país.

Nuestro sistema institucional de gobierno no se puede construir ni sobre los sueños de quienes desean una España homogénea, ni sobre los de quienes pretenden la (auto)suficiencia de los autogobiernos territoriales, porque unos y otros ignoran las exigencias de la realidad.

La experiencia de la gestión de la pandemia reafirma este principio esencial de los sistemas federales: la necesidad de articular adecuadamente gobierno común (*shared rule*) y autogobiernos territoriales (*self-rule*). Una articulación que en España no se ha alcanzado de forma satisfactoria, como, lamentablemente, se comprueba en una situación de extrema gravedad como la de esta pandemia. Tampoco el sistema parlamentario –la otra de las columnas vertebrales de ese sistema de gobierno- ha mostrado un funcionamiento idóneo, especialmente por una escasa cultura política propositiva de las fuerzas parlamentarias.

La crisis que padecemos y la reconstrucción que debemos afrontar ponen en evidencia la necesidad indispensable de mejorar el sistema autonómico. Resulta esencial convertir esta crisis en la oportunidad para corregir errores, para reformar lo que se ha demostrado fallido y para dotar al sistema de los elementos necesarios de los que carece, así como consolidar y profundizar los elementos de cogobernanza y cooperación que han surgido.

Está muy extendido el escepticismo sobre la capacidad del sistema político para afrontar esta tarea. Pero no nos resignamos a la parálisis del sistema ni a contemplar la confrontación entre dos pretensiones –una puramente centralizadora; otra, impulsora de un nuevo cantonalismo- que pondrían en riesgo la estabilidad del sistema democrático y, en particular, la del sistema autonómico.

En este sentido, consideramos imprescindible afrontar dos ámbitos de reformas.

1.- Una reforma de la legislación –del estado de alarma y de salud pública- para establecer de forma más precisa las formas y límites de las facultades de los poderes públicos frente a una crisis como la que padecemos, imposible de prever en su momento, y garantizar adecuadamente una seguridad jurídica que ahora está en entredicho, precisamente, por lo genérico e indeterminado de esas regulaciones legales.

2.- Una reforma del sistema autonómico, que establezca de manera más desarrollada y adecuada la articulación entre gobierno común y gobiernos territoriales, de forma general y, muy especialmente, en situaciones extraordinarias.

Dos ámbitos de reforma, dos retos que requieren de los actores políticos –partidos y gobiernos-, no olvidar el objetivo principal: afrontar eficazmente la pandemia y sus efectos. Nuestra sociedad demanda, de forma ineludible, una doble lealtad: al sistema de gobierno, en la confrontación partidista, y al respectivo ámbito de poder, en la actuación de los gobiernos. Más aún cuando la vida, la salud y el bienestar de la ciudadanía están en juego.

### **Sistema autonomikoa pandemiaren aurrean**

Koronabirusaren krisiaren eraginez agerian gelditu dira gure gobernu sistemaren indarrak eta ahuleziak, eta oso bereziki gure sistema autonomikoarenak. Berretsi egin da, alde batetik, lurraldeen

autogobernuak saihestezinak direla, sistema demokratikoaren egituraketaren osagai ezinbestekoak, Espainia erreala mota askotako errealitatez osatua baitago; eta bestetik, era berean, herrialde osoko gobernu partekatuaren behar ezinbestekoa ere.

Gure gobernu sistemak ezin ditu oinarri hartu ez Espainia homogenea nahi dutenen ametsak ez eta lurraldeen (auto)askatasuna nahi dutenenak ere, batzuk eta besteok ez baitituzte kontuan hartzen errealitatearen eskakizunak.

Pandemiaren kudeaketan daukagun esperientziak, zeinetan ez garen oso ondo lanean ari herrialde gisa (ingurukoen artean emaitzarik txarrenak dauzkagunetako bat gara) berretsi egin du sistema federalen oinarritzko printzipioa: gobernu partekatuaren (*shared rule*) eta lurraldeen autogobernuen (*self-rule*) artean antolaketa egokia ezartzeko beharra. Espainian aski ondo burutu ez den antolaketa, tamalez, egungo pandemiak ekarri duen muturreko egoera larriak erakutsi duen gisan. Bestalde, sistema parlamentarioak ere –gobernu sistemaren beste zutabeak– ez du egoki funtzionatu, bereziki indar parlamentarioek jarduera proposatzaile eskasa erakutsi dutelako.

Jasaten ari garen krisiak eta aurrean dugun berreraikitze-eginkizunaren beharrak agerian utzi dute sistema autonomikoa hobetzeko premia bizia. Aurrean dugun krisia abagune bihurtu behar dugu: okerrak zuzentzeko, txarto funtzionatzen duela frogatutakoa erreformatzeko eta gure sistema beharrezko baliabideekin hornitzeko, eta sistemari behar zituen elementuak eta falta dituenak ere eskuratzeko; baita sortu diren kobernantzako eta lankidetzako elementuak finkatzeko ere.

Halako eginkizunari aurre egiteko sistema politikoaren gaitasunari buruzko eszeptizismoa oso zabalduta dago. Baina ezin dugu etsi sistemaren paralisaren aurrean eta ezin gara geldik geratu bi motako asmoen arteko gatazkaren aurrean: bata, zentralizatzaile huts-hutsa dena; bestea, kantonalismo berri bat bultzatzen duena, bi-biek arriskuan jarriko baitute sistema demokratikoaren egonkortasuna eta, bereziki, sistema autonomikoarena.

Bide honetan, ezinbesteko ikusten dugu bi erreforma eremuri aurre egitea:

1. Legeen eraberritzea –alarma egoerari eta osasun publikoari buruzkoak– zehazkiago ezar ditzaten jasaten ari garen bezalako krisi baten aurrean botere publikoek har ditzaketen erabakiak eta horiek dituzten mugak, ezinezkoa izan baitzen hori egoki aurreikustea haiek sortu ziren garaian; eta egoki berma dezaten gaur zalantzan dagoen segurtasun juridikoa, hain zuzen ere, halako lege-xedapenek duten ezaugarri zabal eta zehaztugabeagatik.

2. Sistema autonomikoaren eraberritzea, gobernu partekatuaren eta lurraldeen autogobernuen arteko egituraketa garatuagoa eta egokiagoa ezartzeko; bai modu orokorrean eta baita, berezi-bereziki, aparteko egoeren aurrean ere.

Bi erreforma-esparru, eragile politikoek –alderdiek eta gobernuak– helburu nagusia ez ahaztea eskatzen dutenak: pandemiari eta haren ondorioei eraginkortasunez aurre egitea. Gure gizarteak, ezinbestean, leialtasun bikoitza eskatzen du: gobernu-sistemari, konfrontazio alderdikoian, eta dagokion botere-eremuari, gobernuen jardunean. Are gehiago herritarren bizitza, osasuna eta ongizatea jokoan daudenean.

**[www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus)**